



**ELAREN IRITZIA ESPAINIAKO GOBERNUAK
ERREFORMA LABORALAREN INGURUAN EGIN DUEN
AZKEN PROPOSAMENARI BURUZ**

2010eko apirilaren 15a

0- SARRERA

Espainiako Gobernuak joan den astelehenean, hilak 12, aurkeztu zuen “Diálogo Social sobre actuaciones en el mercado de trabajo” izeneko agiria (“Lan-merkatuko jardunbideei buruzko Elkarrizketa Soziala”), datorren lan-legeriaren erreformarako bigarren zirriborroa.

Proposamen honetan jasotako ildoak lehenengo agirikoen oso antzekoak dira (hura otsailaren 5ean zabaldu zen, eta ELAk eman zuen hari buruzko iritzia). Halere, haietako batzuk desagertu egin dira:

- Negoziazio kolektiboari eta barne-malgutasunari buruzkoak. Gobernuaren arabera gaiok “funtsezkoak dira lan-merkatuan sakoneko aldaketak egiteko”, baina bigarren agiri honetan ez ditu jaso, aldebiko esparruan landu beharrekoak direla uste baitu, otsailaren 9an sinatu zen Enpleguari eta Negoziazio Kolektiboari buruzko 2010-2012 Akordioak gomendatzen duen legez. Gobernuak agintzen du iristen diren akordioak lege bihurtzeko beharrezko lege-erreformak egingo dituela.
- Gauza bera dio aldi baterako ezintasunaz. Espainiako Gobernuak uste du gai hau elkarrizketa sozialean eztabaidatu behar dela, Toledoko Ituneko kide sozial berdinekin, kontu hau areago baitago Gizarte-Segurantzarekin lotuta, eta ez hainbeste lan-merkatuarekin.

Gai hauei buruzko proposamen konkreturik ez egiteak ez du esan nahi hauek etorriko ez direnik; aldiz, beste esparru batzutara eramango dituzte. Beraz, gobernuaren agiriak bost alderdi hartzen ditu aintzat: lan-merkatuko dualtasuna eta aldi baterako enplegu tasa, onura-politika berrikustea, gazteentzako enplegu programa, lan-merkatuko bitartekaritza eta lanaldi murrizpena sustatzea.

Zapateroren Gobernuak lehengo helburu bera du, negoziazioa hiruparteko akordio batekin amaitzea, lan-merkatua modernoagoa, funtzionalagoa eta ekonomiaren bilakaerarekin koherenteagoa izan dadin; hitz hauek saldu nahi dutena erakargarriago egiteko besterik ez dira.

ELAren iritiz erreforma laboralaren benetako helburua gero eta gehiago ari da zehazten eta nabarmentzen, lan-eskubideen murrizketa eta okertze bat, ondoren ikusiko dugunez.

I- GOBERNUAREN PROPOSAMENEN AZTERKETA

Agiriaren diagnostikoan eta aurrekarietan esaten da lan-merkatuko dualtasuna eta aldi baterako enplegu maila altua gutxitzeko kontratu egonkorren alde egin behar dela (hots, kontratu finkoen alde), eta aldi baterako enpleguaren erabilpen arrazionalagoa egin. Halaber, beharrezkotzat jotzen dute gazteak enplegua lortzeko moduan izan daitezen baldintzak hobetzea.

Bada, aipatzen diren neurriak ez datoz helburu horiekin bat. Hauek dira proposamen nagusiak:

- “Kontratazio finkoa sustatzeko kontratua” indartzea, hots, bidegabeko kaleratze kasuetan lan egindako urteko 33 eguneko kalteordaina duena, eta ez kontratu finko normalaren 45 egunekoa.

Sustapenezko kontratu finko hauekiko honakoa aipatzen dute: “kaleratze kolektibo eta objektiboen amaitze-kostuen zati bat kentzea”. Beraz, enpresaburuarentzat kaleratzea merkeagoa izatea. Honi eufemismoz “eredu austriarra” esaten zaio, eta eredu honetan langileen mobilitatea zein flexisegurtasuna ohikoak dira.

Bestalde, kaleratzeari buruz beharrezko jotzen dute lege-aldaketak egitea, mota bakoitza zehatzago eta argiago bereizteko, eta “kontratua amaitzeko prozedura juridikoak desitxuratu dituzten praktika okerrak” baztertze aldera. Hots, kaleratze objektibo (merke) gehiago bilatzen da, eta bidegabeko (garesti) gutxiago.

Horrenbestez, kaleratzea merkatu nahi dute, den bidetik dela ere.

- Lanaldi partzialeko kontratuen aldeko apustua; baina lanaldi partzial era hau norbere eta famili-bizitza bateratzeko helburuaren kontrakoa da, erabat kolokakoa izanik, lanaldi partzialeko kontratua egiten duen enpresaburuak langilearen ordutegia ia betarik eman gabe aldatu ahal izango baitu.
- Gazteen enpleguaren aldeko ekinbideak; baina prestakuntzako kontratuetan enpresek ez dute bat ere kotizazio sozialik ordainduko, eta ordainsariak ez dira lanbidearteko gutxieneko soldatetik gorakoak izango.

Halaber, enpresetan praktika ez laboraleko aldiak proposatzen dira, beka bidez ordainduak eta parte hartzen duten edo lankide diren enpresentzako diru-laguntzekin.

- Lan-merkatuko bitartekaritza aldatzea, irabazi asmoko enplegu-bulego pribatuei bide emanaz (legalizazioa). Testuaren arabera, bestalde, ABLEentzako mugak bertan behera uzteko borondatea ere badute.

Horrela aurrera egiten dute ABLEei protagonismo handiagoa eta enplegu-zerbitzu publikoekiko botere-kuota gehitzeko bidean.

- Lanaldi murriztua enplegua aldi baterako doitzeko modu legez erabiltzea. Hots, enplegua eten edo lanaldia murrizteko espedienteak erraztea, eguneko, hileko edo urteko lanaldiaren arabera.

Gainera, neurri horrek zein plantilla tamainari eragin diezaiokeen argitu beharra omen dago.

Eragindako langilearen gizarte-babesa hobetu egingo da –betiere prestakuntzan parte hartzen badu–, erabilitako langabezia ordainen epealdia luzatuta.

II- ONDORIOAK

- Bigarren zirriborro honek berretsi egin ditu ELAk otsaileko agiriari buruz emandako iritzi guzti-guztiak. Oraingo agiria aurrekoaren garapena besterik ez da; zenbait atal zehaztu egin ditu.
- ELAk arbuiatu egiten ditu Gobernuak erreforma laboralerako proposatu dituenak, kaleratzea erraztu eta merkatu egiten baitute, hainbat bidetatik enpleguaren malgutasuna eta prekarietatea areagotzen dute, enplegu bitartekaritzan negozio pribatuei merkatua hedatzen dietelako (ABLE eta enplegu-bulego pribatuei), eta patronalari guztia musutruk ematen diotelako: proposamen guztietan irabazi egiten du.
- Proposamen honek azken erreforma laboralen joera berari jarraitzen dio, eta erreforma haiek itxuratu dute egungo lan-merkatua (honen ikur langabezia, prekarietatea eta soldata txarrak direlarik).
- Gobernuak krisia baliatu egin nahi du indar-erlazioa langile-klasearen kaltetan aldatzeko. Zapateroren asmoak gauzatuz gero, patronala indartuta aterako litzateke, betikoon bizkarretik.
- Berriro salatu behar dugu prozesu honetan dagoen informazio gabezia eta ezkutukeria; are gehiago langile-klasearentzako hain garrantzitsua den gai bat izanik.
- ELAk gizarteratu egingo du aurrerantzean ere bere salaketa: gobernuaren asmoa eskubide laboral eta sozialen kontrako eraso da.